

Bertizek basoa zentzumenen bidez ezagutzera animatu du

Ingurumenak hainbat jarduera antolatu ditu martxoaren 21etik 24ra Basoen Nazioarteko Eguna ospatzeko

Ostirala, 2024ko Martxoaren 15a



Pirinioetako hariztia.

Bertizko Jaurerria Parke Naturalak, martxoaren 21ean ospatuko den Basoen Nazioarteko Eguna dela eta hainbat jarduera antolatu ditu. Ostegunetik igandera bitartean, hilaren 24ra arte, adin guztiei zuzendutako doako bisita gidatuetan edo jarduera ludikoetan parte hartu ahal izango da. Parte hartzeko, aldezturik izena eman behar da cinberti@navarra.es helbidean edo 948592421 telefonora deituz.

(Albiste honi buruz gehiago jakin nahi baduzu, mesedez kontsulta ezazu gaztelaniazko bertsioa. Goiko nabigazio barra gorrian alda dezakezu hizkuntza).